

6

Jarrera eta motibazio kontzeptuen haratago... Hizkuntza kultura, praktikak eta emozioak.

Jone M. Hernández

Gizarte Antropologia irakaslea. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

jm.hernandez@ehu.eus

Sarrera-data: 2016-07-10 | Onartze-data: 2016-09-13

Laburpena. Artikuluak helburu bikoitza du. Alde batetik, erreparatzea azken hamarkadetan hizkuntzaren dimentsio subjektiboak izandako garapenean, eta bestetik, ibilbide honen ondorioz, irudikatzea aurrera begira planteatu daitezkeen erronka eta eginkizun berriak. Ariketa hau, nagusiki, gizarte antropologiatik eta teoria feministatik burutuko da. Izaera partziala duen ariketa da, beraz. Gainera, hizkuntzaren dimentsio subjektiboak ertz asko eduki ditzakeela jakinik, kasu honetan hiru aspektutan jarriko da arreta: (1) hizkuntza kulturaren garapenean, (2) identitatea eta praktika gorpuztuetan (3) eta ekintzen (performancea) eta emozioen arteko loturan. • **Hitz gakoak:** *hizkuntza kultura, hizkuntza identitatea, praktika, performancea, emozioak.*

Abstract. This article has a dual aim. Firstly, to focus on the development that has taken place in the subjective dimension of language over the last few decades, and secondly, as a result of this path trodden, to envisage the new challenges and actions that could emerge in the future. This exercise will be carried out mainly from social anthropology and feminist theories. So it is an exercise of a partial nature. Furthermore, aware that the subjective dimensions of language can have many aspects, focus has been placed in this case on three aspects: (1) on the development of language culture, (2) on identity and shaped practices (3) and on the link between actions (performance) and emotions. • **Key words:** *language culture, language identity, practice, performance, emotions.*

Soziolinguistika Klusterrak atzera begira jarri gaitu, soziolinguistikaren ikuspegitik, gurean, azkenengo 30 urteotan izandako aldaketek hausnartzeko eta, bide batez etorkizunari so egiteko. Batak, zein besteak, ariketa zaila eskatzen dute, tarte hori bereziki intentsoa eta mamitsua izan delako. Aldaketa asko gertatu dira, denbora laburrean gainera: nazioarte mailan, nahiz Euskal Herri mailan; izaera sozial, politiko, ekonomiko, kultural edo teknologikoa dutenak...; tamaina eta dimentsio askotarikoak. Orokorrean, guzti horrek hizkuntzarengan izandako eragina oso modu zeharkakoan aztertu delakoan nago eta, gurean izandako ondorioak ikertzeko daudela uste dut. Hau hutsune garrantzitsua iruditzen zait eta horren ondorioak jasan behar izango ditugulakoan nago, baita soziolinguistikaren eremuan ere. Mudantzen jatorria eta euren nondik norakoak ezagutu gabe zaila izaten da egoerak diagnostikatzea, errealitatea interpretatzea eta azalpen zuzenak ematea.

Esandakoak esanda eta aldaketa guztien gainetik, aipatu behar da euskararen aldeko dinamika sozialak, kulturalak zein politikoak, asko, anitzak eta interesgarriak izan direla denbora tarte berdinean. Gauza asko egin dira euskararen arloan, balorazioak izaera askotarikoak izanda ere.

Garai bat agortuta sumatzen da, urtetan garatutako tresnak, kontzeptuak, leloak..., agortuta sumatzen direlako. Aipatutako aldaketa makrosozialez gain, agertoki soziopolitiko berria sortu da Euskal Herrian, azken hamarkadetan euskarak ezagutu ez duen egoera batean utziz. Horretaz gain, haur eta gazteen belaunaldi berriek aro soziolinguistiko oparo bat ekarri dute, euren esker euskaldunen kopurua nabarmen handitu delarik.

Errealitate honen aurrean, hizkuntzaren gaineko diskurtso berrien falta sumatzen da: nola komunikatu euskararen egoera agertoki berri honetan/hauetan? Zein kontzeptu erabili? Zein mezu eta irudi? Zer eskatu edo aldarrikatu?

Galdera hauek argitzen hastea gomendagarria dirudi, baina, nire ustez, diskurtso berritzailearekin batera bestelako berrikuntzak ere gertatu beharko liriateke: diagnostiko berriak, zabalagoak eta konplexuagoak behar dira; diziplinen artekotasunetik sortutako diagnostikoak; egoera modu integralagoan ulertuko dutenak; kontzeptu berriak mahai gaineratuko dituztenak; ikuspegi zein paradigma berriak proposatuko dituztenak... Berrikuntzarako bide hau hartu ezean, egindako ahaleginak hanka motz geratu daitezke. Zaila dirudi egindakoaren gainean, eta ikuspuntu, aldagai, kategori berdinak erabiliz zerbait *berria* sortu ahal

**nire ustez,
diskurtso
berritzailearekin
batera bestelako
berrikuntzak ere
gertatu beharko
liriateke:
diagnostiko
berriak,
zabalagoak eta
konplexuagoak
behar dira;
diziplinen
artekotasunetik
sortutako
diagnostikoak;
egoera modu
integralagoan
ulertuko
dutenak;
kontzeptu
berriak mahai
gaineratuko
dituztenak;
ikuspegi zein
paradigma
berriak
proposatuko
dituztenak...**

**zer dago jarrera
bat edo beste
baten oinarrian,
abiapuntuan?
Zer behar da ni
motibatzeke?
Zerk
sostengatzen du
nire interesa eta
atxikimendua
euskararekiko?**

izatea. Berria izan behar badu, errotik sortua izan beharko du, gaur egungo baldintzak eta beharrei erantzungo diena. Nago azkenengo hiru-lau hamarkadetan euskararen egoera guztiz eraldatu dela, bere testuinguruak egin duen moduan. Horrek eraldaketa epistemologikoak, teorikoak eta metodologikoak eskatzen ditu.

Halere, hau guztia esatea gauzatzea baino errazagoa da, horregatik, komeni da lasai hartzea eta poliki ekitea. Horregatik, datozen orriotan bildutako ideiak aipatutako beharrezko den birpentsatze prozesuan, urrats txiki bat izan nahiko luke, batez ere, hizkuntzarekin lotutako dimentsio subjektiboa(k) aztertzeke eta berraztertzeke garaian. Helburua bikoitza litzateke. Alde batetik, erreparatzea —oso gainera bada ere— azken hamarkadetan hizkuntzaren dimentsio subjektiboak (eta bere baitan biltzen diren elementuek) izandako garapena, eta bestetik, ibilbide honen ondorioz, irudikatzea aurrera begira planteatu daitezkeen erronka eta eginkizun berriak. Argitu behar da, ariketa hau egilearen erreferenteak diren diziplina eta paradigmatic egingo dela, alegia, gizarte antropologiatik eta teoria feministatik. Izaera partziala duen ariketa da, beraz.

Bestalde, hizkuntzaren dimentsio subjektiboak ertz asko eduki baditzake ere, kasu honetan hiru aspektutan jarriko da arreta: (1) hizkuntza kulturaren garapenean, (2) identitatea eta praktika gorpuztuetan (3) eta ekintzen (*performancea*) eta emozioen arteko loturan.

1. EUSKARA ETA HIZKUNTZA KULTURAREN GARAPENA

I
Euskarari buruz ari garela, ohikoa bilakatu da gurean jarreraz hitz egitea. Jarrera eta motibazio kontzeptuak 80. hamarkadan ezagutu genituen —bereziki, baino ez bakarrik, José María Sánchez Carriónen eskutik (Sánchez Carrión 1987)— eta geroztik erabilera teorikoa izateaz gain, erabilera praktikoa ere izan dute. Ez da noski nozio bat euskal soziolinguistikak sortua, ezta bereziki euskararen kasuan aplikatzeko pentsatua ere. Esango nuke psikologian duela erabilera nagusia, auzokide diren beste diziplina batzuetara zabaldu bada ere. Oinarri intelektual honek badu, nire ustez eragina, izan ere talde *jarreraz* edo jarrera kolektiboaz hitz egiten bada ere, kontzeptua, normalean, banakako portarekin oso lotuta agertzen delako. Gurean, esate baterako, ohikoa izan da hiztunen jarrera teknika kuantitatiboak erabiliz neurtzea. Alegia, hiztunei galdetzea hizkuntza bat edota batzuen inguruko jarrerai buruz

(bere atxikimenduari buruz, bere gainean hartzen diren erabakiei buruz, eta abar) eta ondoren, erantzunen arabera, hiztunak multzokatu kategoriaz ezberdinen baitan (*Alde, Ez alde ez aurka, Oso aurka...* edo antzeko epigrafeak erabiliz).

Horrelako planteamendu metodologikoez badituzte, zalantzarik gabe, bere abantailak. Horien artean, bat, oso nabarmena, ikerketa bera denboran zehar errepikatzeko aukera izatea da. Kasu honetan, galdera berdina mantentzen badira urtez urtez jarrera aitortu horren garapena aztertzeko parada izango genuke. Horren adibide dira urtetan burututako azterlan soziolinguistikoen uzta, egun euskararen eremuan hiztunek adierazitako jarrerak izandako ibilbidearen inguruko gogoeta ahalbidetzen dutenak¹.

Aztertutako datuen bitartez, saiakerak egin dira hiztunek euskararekiko duten eta izango duten jokabidea irudikatzeko: jarrera “X” bati, jokaera “Y” bat dagokiola finkatuz. Ikuspegi honetatik hainbat hausnarketa burutu dira eta, Xabier Erizek berak egiten duen antzera, aurreikuspenak irudikatzen ere iristen dira zenbait.

Horrelako iragarpen ariketak ohikoagoak izan badira ere, gutxiago dakigu jarrerak eta motibazioak sostengatzen dituzten elementuei buruz. Hau da, zer dago jarrera bat edo beste baten oinarrian, abiapuntuan? Zer behar da *ni motibatzen*? Zerk sostengatzen du nire interesa eta atxikimendua euskararekiko? Galdera zailak benetan, erantzun bakarra onartzen ez duena. Nik beste erantzun posible batzuk baztertu gabe, gizarte antropologiatik eta, bereziki, hizkuntz antropologiatik erantzuten saiatuko naiz, jakinda —espazio eta denbora oztupo nagusi izanik—, azalpen partziala eta mugatua gertatuko dela.

Bere dimentsio komunikatiboa ukatu gabe, Alessandro Durantik hizkuntza elementu sortzaile bezala definitzen du. Hizkuntza, baliabide kultural bat da, eta praktika multzo bat bezala irudikatzen du (Duranti 2000). Praktika horien bitartez, hain zuzen ere, munduan egoteko modu bat islatzen eta gauzatzen da. Hau da, hizkuntza eskura dugun tresna litzateke, bai gure ingurunean eragiteko, bai mundua edo bizitzari lotutako ikuspegia adierazteko. Garrantzia ematen diot egite/ekite horri eta bere kokapen zehatzari (denboran eta espazioan), horrek marka bat uzten duelako testuinguruan. Eta marka hau era ezberdinetakoa izan daiteke². Ondorioz, esan genezake hizkuntzaren bitartez *gauzak sortu ditzakegula* (diskurtsoak, hiztegiak, literatur generoak, baina baita egoerak ere). Hitzak badu, zentzu horretan, bere kultura material propioa.

**Alessandro
Durantik
hizkuntza eskura
dugun tresna
litzateke, bai
gure ingurunean
eragiteko, bai
mundua edo
bizitzari lotutako
ikuspegia
adierazteko.**

**Hizkuntza beste
batzuekin erabili
eta partekatzen
dugunean
gizarte,
komunitate zein
talde baten
partaide
bilakatzen gara,**

**Azkenik,
hizkuntza bat
zerbaiten ikur
bihurtzen
dugunean ideien
munduan
eragiteko aukera
garatzen ari
gara. Alegia,
hizkuntzaz
aritzen garenean
horri lotutako
ideologia
garatzen ari
gara,**

Horretaz gain, hizkuntza beste batzuekin erabili eta partekatzen dugunean gizarte, komunitate zein talde baten partaide bilakatzen gara, talde hori mantenduz eta elikatuz. Hauek, talde etnolinguistikoak izan daitezke, baina beste era bateko taldeak irudikatu ditzakegu ere, praktika komunitate deiturikoak esate baterako (Eckert; McConnell-Ginet 1992). Ados egongo gara, abokatuek, medikuek, ingeniariak eta soziolinguistek euren hizkuntz komunitate propioa dutela, beste elementu batzuek gain, hizkuntza bera (hiztegia, hitz egiteko moduak, eta abar) partekatzen dutelako³. Azkenik, hizkuntza bat zerbaiten ikur bihurtzen dugunean ideien munduan eragiteko aukera garatzen ari gara. Alegia, hizkuntzaz aritzen garenean horri lotutako ideologia garatzen ari gara, izan diskurtso, lelo edo iruditegi jakin baten bidez. Honekin lotuta aipatu daiteke, gurean, askotan entzun duguna: gutxi hitz egin da euskaraz, baina asko euskararen inguruan, euskarari buruz. Alegia, euskararen gaineko (hizkuntz) ideologia (diskurtsoak eta abar) dezente garatu dugula.

Nago, hizkuntzaren hiru dimentsio hauek (materiala, kolektiboa eta ideologikoa), parte garrantzitsuak direla hizkuntzaren gaineko kultura eraikitzeko; pertsona, hiztun gisa, sozializatzeko ezinbestekoa dena. Kultura hau —hizkuntz kultura— zorua litzateke, talde, zein banakako elementuak garatu ahal izateko, besteak beste hizkuntzarekiko jarrerak. Euskararekiko atxikimendua (nire *jarrera*, nire *motibazioa*...) garatzeko hiru dimentsio horiek beharko nituzke: a) behar dut korpus bat, erreferente materialak, fisikoak eta gorpuztuak (izan literatura, kanta, hiztegiak, gramatika bat, *Euskaraz bizi nahi dut* afixa, *Korrika*, euskaltegiak, euskara irakasleak, bertsolariak, eta abar luze bat); b) behar ditut talde, gune edo komunitate ezberdinak zeinetan hizkuntz harremanak gauzatzen diren (mintzalagunak, euskara elkarteak, hezkuntza komunitateak, nire antropologia ikasleak, nire lankide antropologoak, dendariak, tabernariak, nire seme-alabak, eta abar luze bat) eta c) behar ditut ideiak, irudikapenak, argudioak, metaforak hizkuntzaren inguruko diskurtsoa(k) osatuko dutenak (maitagarria, nirea, gurea, praktikoa edo pragmatikoa, politikoa, negozioa, sexista, beharrezkoa, etxekoa, eta horrelakoak).

Elementu guzti horiek behar ditut, aipatutako hiru dimentsio horietan sailkatuta, nire hizkuntz kultura garatzeko eta, hortik aurrera, jarrera bat edo beste lantzen, eraikitzen..., joateko.

Antropologiaren ikuspegitik behintzat, kultura gizakiaren heldulekua da bizitzari aurre egiteko eta bizitzari zentzu bat emateko. Gurean asko

hitz egin da, eta hitz egiten da, euskal kulturari buruz —euskarari buruz hitz egiterako garaian ere—, baina gutxi edo batere ez da aipatu izan hizkuntzek eta, hizkuntzen bitartez sortzen eta garatzen dugun kulturari buruz. Euskarari buruz hausnartzeko garaian adiera antropologikoa ez dugu kontuan hartu eta, hor aukera bat galdu da hausnaraketan eta azterketetan hizkuntzarekin loturiko hainbat elementu oinarrikoak txertatzeko.

Euskal soziolinguistika sortu zenetik hiru-lau hamarkada pasa direla kontuan hartuta, zer esan dezakegu garatu dugun euskararen kulturaren inguruan? Eta testu honen kasuan, garrantzitsuagoa dena: zer esan daiteke kultura horrek hizkuntzaren dimentsio subjektiboetan izandako eraginaren inguruan?

Nire ustez, galdera hauek erantzuteko lagungarria izan daiteke, kultura horretan jaio, hazi eta hezi diren belaunaldi gazteengan erreparatzea, beraiek baitira kultura horren jasotzaile zuzenak. Beraiei begira beraz, zer topatzen dugu? Galdera hau erantzuteak lan serioagoa eta sakonagoa eskatzen du, beraz, une honetan ñabardura asko beharko lituzketen printza batzuk ematera baino ez naiz ausartuko.

Gazte hauen gurasoek horrela nahi izan dutelako, euskaraz eskolatu dira, Euskal Autonomia Erkidegoko ume gehienak batik bat. Eurentzat bi esparru izan dira nagusiki hizkuntz kulturaren sorburu: hezkuntza sistema (eskola zehazki) eta familia. *Input* gehienak bi iturri horietatik jaso dituzte. Gero, gune oso euskaldunetan bizi izan direnak, beste erreferente batzuk ere izan dituztela esan daiteke, baina orokorrean sakabanatuagoak egon dira (pixka bat aisialdian, apur bat komunikabi-deetan, beste hainbeste lagunen artean...). Beraz, haur, nerabe eta gazteentzat hizkuntza kultura garatzeko iturri nagusiak hezkuntza eta familia izan dira, eta horietan hizkuntzaren gainean landutako dimentsio material, kolektibo eta ideologikoak.

Zer eskaini diegu aipatuko dimentsio horietako bakoitzean? Zer kantitatez eta zer kalitatez? Bestalde, hiru dimentsio horien artean, zeini eman diogu garrantzi gehiena? Eta, denen baturarekin, zein kultura sortu dugu? Nola jaso dute hori ume, nerabe eta gazteek? Jaso dutena baliagarria egiten zaie? Zertarako?

Hamaika galdera bururatzen zaizkit. *Jarrerak* edota jarreraren nozioa, portua balitz, itsaso zabal bat irekitzen zaigu hizkuntzaren gainean nabigatzeko erantzun batzuen bila.

**Nago,
hizkuntzaren
hiru dimentsio
hauek
(materiala,
kolektiboa eta
ideologikoa),
parte
garrantzitsuak
direla
hizkuntzaren
gaineko kultura
eraikitzeko;
pertsona, hiztun
gisa,
sozializatze
ezinbestekoa
dena.**

beste toki askotan gertatu den antzera. Bereizketa horien inguruan muga sozialak, politikoak eta kulturalak ezarri dira. Hauek, diskurtso mailan, bederen, eraginkorrak suertatu dira.

Euskararen ikuspegitik klaseari loturiko elementuek, hainbat une eta gunetan garrantzia izan badute ere, orokorrean bigarren mailan geratu direla esan daiteke. Generoa, azkenik, ikusezin mantendu da. Ez du inoiz —orain dela oso gutxi arte— euskal identitatearekin loturiko eztabaidetan parte hartu. Hutsune honen zergatia azaltzeak luze jo dezake, baina arrazoi ezberdinen artean bat ematearren, euskal testuinguruan emakumeen inguruan garatutako mitologiak eta ideologiak izan duten eta oraindik duten pisua nabarmendu beharko litzateke.

Diskurtso nagusiek (euskal) emakumeen ustezko boterea onartu eta goraiatu izan dute eta, zenbaitek, hori euskaltasunaren ikur edo bereizgarri gisa kontsideratu ere. Egun, matriarkatuaren ideologiak babesten ditu uste horiek eta horren bitartez euskal emakumeen protagonismoa ziurtatzen omen da.

Halere, orain dela bi-hiru hamarkada euskal feminismoak ideologia honen azterketari eta kritikari ekin zion. Horren fruituak hainbat lan zientifikotan islatu ziren. Horien artean bat aipatu behar izatekotan Teresa del Valle zuzenduriko *Mujer Vasca. Imagen y realidad* (1985) nabarmenduko nuke, bertan euskal emakumeei atxikitutako boterea (ideala) eta pisu sozial errearen mugak argi agertzen direlako. Horrela, teoria feministek lagunduta argi ikus dezakegu euskal identitatearen eraketan ere genero sistemek eragin dutela eta, genero rola ezartzeaz gain, generoen parekotasun ezaren garapena ere eman dela eta ematen dela.

Utz dezagun momentuz eztabaida hau. Argi dagoena da, azken hamarkadetan hizkuntza eta identitatearen arteko lotura aipatzerakoan, garai zehatz bateko egituraz eta osagarriaz ari garela; garai zehatz batean nagusitu diren egituraz eta osagarriaz. Eta garai modernoan, etnizitatea —hizkuntzarekin bat eginik— elementu nagusi bezala hartu izan da euskal nortasuna hornitzeko. Eta egun? Mantentzen da eredu hau?

Nire ustez, zaila dirudi, batetik, identitatea bera ulertzeko eta definitzeko moduak aldatu direlako; bestetik, identitatea osatzeko prozesuak ere, egun ezberdinak direlako.

Besteak beste, teoria feminista ezberdinen eskutik, eta bira performatiboaren eraginez, (*performative turn*)⁵ identitatearen gaineko ikuspegi eta diskurtsoak

Azken hamarkadetan hizkuntza eta identitatearen arteko lotura aipatzerakoan, garai zehatz bateko egituraz eta osagarriaz ari garela. Eta garai modernoan, etnizitatea – hizkuntzarekin bat eginik– elementu nagusi bezala hartu izan da euskal nortasuna hornitzeko. Eta egun?

Identitatearen gaineko ikuspegi eta diskurtsoak nabarmen birformulatu dira azkenengo hamarkadetan. Identitateak bere kutsu esentzialista galtzen du eta norbanakoak bere identitatea eraikitzerakoan duen partaidetza azpimarratzen da, hiztunak eginkizun honetan azaltzen duen grina eta inplikazioa nabarmenduz.

nabarmen birformulatu dira azkenengo hamarkadetan. Hauek, hiztunen kasuan aplikatzen badira, proposamen berriak ekartzen dituzte: identitateak bere kutsu esentzialista galtzen du eta norbanakoak bere identitatea eraikitzerakoan duen partaidetza azpimarratzen da, hiztunak eginkizun honetan azaltzen duen grina eta inplikazioa nabarmenduz. Hurrengo atalean, honetaz hitz egingo da zehaztasun gehiagorekin.

Aurretik esanda dago: antropologiaren ikuspegian bederen, hizkuntzaren izaera sortzailea nagusitzen da, baliabide kultural gisa eta praktika multzo bat bezala (Duranti 2000) irudikatuz. Modu honetan, hiztuna protagonista bilakatzen da, gizarte aktorea edo ekintzaile bihurtzen baita. Komunitate bateko partaide izateaz gain, errealitatearen sortzaile gisa —hizkuntzaren jabe den neurrian— ere agertzen zaigu. Ekimen eta egitearen poderioz bere oinatza uzten du testuinguruan, baina hori ere bueltan etorriko zaio, aritze horrek bere identitatearen sorkuntzan, eraikuntzan eta berreraikuntzan ondorioak izango dituelako. Horra hor, identitate performatiboaren gakoa: gizabanakoaren inplikazio aktiboa (ekitean/egitean sortzen duelako bere identitatea, alegia, hura performatzen duen neurrian).

Hau da, euskaraz egiteak laguntzen du giro, nahiz testuinguru euskaldun bat sortzen eta lortzen, baina, gainera, aritze horrek badu ondorio bat nire/gure burua euskaldun bezala irudikatzeko garaian. Sentimenduaz gain (euskaldun bezala sentitzen naiz eta izendatzen dut nire burua), praktikak hizkuntza gorpuzten laguntzen du, praktikare⁶ bitartez esperientziak, bizipenak, emozioak gauzaten eta barneratzen direlako.

Gauzak horrela, ekintzak protagonismoa bereganatzen du, baita hizkuntzaren inguruan ari garenean ere (Pennycook 2010, 2):

To look at language as a practice is to view language as an activity rather than a structure, as something we do rather than a system we draw on, as a material part of the social and cultural life rather than an abstract entity.

Argi dago praktikaren ikuspegiak aukera berriak ematen dituela identitatea malgutzeko eta zabaltzeko. Gainera identitate ezberdinak edota elementu identitario ezberdinen arteko elkarbizitza ahalbidetzen du, izan ere praktikak (esentziak ez bezala) bizipen, nahi, desio eta sentimendu ezberdinak gainjartzeko aukera ematen baitu.

Halere, euskararen kasuan, identitate performatibo honek arrisku bat dakar, edo, hobeto esanda, arrisku bat uzten du agerian: hizkuntz erabi-

leraren datu baxuak. Gauza bat da hizkuntza ikastea eta horren jabe egitea, baina erabiltzen ez bada, zaila dirudi identitatean txertatzea. Gehienez, ikur gisa ager daiteke, testuinguru jakin batzuetan azaltzeko edota aldarrikatzeko, baina pertsonen egunerokotasunetik kanpo kokatuko da eta, bizipen eta emozioen ontzia hutsik geratuko da. Mari Luz Estebanek dioen moduan (Esteban 2009), gorputz bat baino ez gara eta, gizakiok, gizaki moduan egiten duguna, gorputz lana da bereziki⁷: emakume izan eta bilakatzea gorputz lana da, gizona izan eta bilakatzea gorputz lana da, baina baita ere irakasle, informatikaria, idazle, zerbitzari, mediku edo suhiltzailea izan eta bilakatzea. Pentsatzekoa da hiztuna izateak eta bilakatzeak antzeko (gorputz) lana eskatzen duela.

Eta prozesu honetan, zein paper dute elementu subjektiboek - jarrerak, motibazioak edo emozioak, esate baterako-? Gutxi, oso gutxi dakigu horren inguruan, besteak beste, euskal soziolinguistikari bederen, ezagutza, erabilera eta jarrera (edo motibazioa) bezalako elementuak, nagusiki, modu isolatutan aztertu izan direlako. Euren arteko loturak sumatu dira, eta egon badirela aldarrikatu da, baina praktikan nola elkar lotzen dira? Nola egiten da jauzi batetik bestera? Edo, kontrako kasuan, zein nolako hutsuneak gertatzen dira dimentsio horien artean —euren arteko elkarrekintzetan, alegia—? Nola azaldu ezagupena, erabilera eta motibazio edalontzien arteko desorekak —ezagupenarena oso beteta eta erabilerarena oso hutsa—?

Sentsibilizazioa (mezuak, leloak, kanpainak...) tresna gisa erabili da, bai ezagupena baita mintzamina areagotzeko, baina pentsatzen dut (onurak aitortu arren), estrategia gisa bere mugak dituela. Horietako batzuk zerrendatuko ditut: izaera oso instituzionala edukitzen dute normalean, (nahiko) kanpotik/goitik bultzatzen da, lehia handia du (mezuz zein irudiz osatutako itsaso zabal batean bizi gara), taldeari (talde identitateari) oso begira dago... Euskal hizkuntz komunitatea (hau egituratzea, sendotzea...) du, bereziki, helmuga.

Hiztun *berri* asko sortu dira azken hamarkadetan, eragile askoren ahaleginez. Argi dago. Baina gutxi erreparatu da bere izaera bakar eta konplexuan. Euskaldunak sortu nahian, hiztun bakoitzak dakarrena (ekarpena, sormena, berezitasuna) galdu edo disolbatu egin da. Jarraitu al da identitatea bakarrik modu masibo eta kolektiboan sortzen eta birsortzen? Dakigunean, identitatea gorputz lan bat dela (ere); dakigunean, identitateak geruza ezberdinak biltzen dituela (jatorria, maila sozioekonomikoa, genero, eta abar luze bat); dakigunean emozioak ere ekintzarako motorra direla

**Zein paper dute
elementu
subjektiboek
-jarrerak,
motibazioak edo
emozioak-?
Gutxi, oso gutxi
dakigu.**

ikuspegian, esate baterako, Judith Butlerrek egindako hurbilpena funtsezkoa litzateke. Butler berak eta bere jarraitzaileak berebiziko garrantzia ematen diote praxiari eta etengabeko aldatetari. Identitatearen oinarrian —diote— ekintza eta errepikapena egongo litzateke; egin eta ekite horrek identitaterako sustraiak izango lirateke eta. Horrela, feminismoaren ikuspegitik, generoa ez litzateke izango *garena* —emakumezkoa edo gizonezkoa— edota gizartean finkatutakoa (estereotipoak edota aurreiritziak); baizik, generoa, *egiten duguna litzateke*. Estebanek (Esteban 2011, 35) dioenez,

(...) generoa, errepikatzen baina, etengabe aldatzen diren egiteko eta munduan egoteko modu gisa ikusiko genuke. Ikuspegi honek nortasuna eta esperientzia desentzualizatzeko laguntza handia ematen du.

Jakinaenez, generoa eta, bereziki genero sistema, oso kontzeptu baliagarria dugu feminismoan. Nozio hau ezinbestekoa zaigu egungo dinamikak ulertzeko, besteak beste, generoa gizarte egiturarekin lotzen duelako. Generoa sexuan oinarritutako irakurketa edota interpretazio soziala litzateke, eta horren arabera emakumezkoen eta gizonezkoen hainbat funtzio, betebeharrak, balioak, ezaugarriak eta abar atxikitzen eta ezartzen zaizkie. Genero sistemak argi uzten digu sexuan oinarritutako irakurketa sozial hori (generoa) ez dela inolaz ere inozentea, eta ere berean nabarmena da botere sistema batean guztiz txertatua dagoela. Sistema horren baitan gizonezkoek egiten dutena, gizonezkoen atxikitzen zaiena, beti prestigio gehiagokoa izango da eta, kontra, emakumeek egiten dutena, emakumeen atxikitzen zaiena bigarren maila batera pasako da.

Eskema hau hizkuntzaren kasuan aplikagarria dela uste dut. Euskaldunak edo erdaldunak, edota hemengoak edo kanpokoak, edota euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak. Hauek izan dira gutxienez azkenengo hamarkadetan indarrean egon diren kategoriak, nolabaiteko mailaketa bultzatu dutenak. Gizarteak eta inguruneak eraginda, batean edo bestean kokatu behar gara eta hortik definitu behar dugu gure burua hiztun gisa. Baina beste kategoria batzuk ere nagusitu dira, esate baterako, baserritarra/hiritarra; eta, zer esanik ez, alderdi politikoek sortutako bereizketak.

Hizkuntzaren inguruan ere, ezarritako kategoriak sinistu eta barneratu egin ditugu eta hiztun bezala aurreikusitakoa (rolak, jarrerak, eta abar.) betetzen saiatu gara (maila ideologikoan behintzat, beste gauza bat da egunerokotasuna): euskaldun zaharrak euskaldun zahar gisa eta, euskaldun berriak euskaldun berri bezala. Beste kasu batzuetan zahar/berri dikotomia erabili beharrean, euskalki ezberdinen erabilpenak ezarri du bereizketarako bidea.

***Ikas prozesuari
eta praktikei
esker milaka eta
milaka hiztun
berrik auzitan
jarri dituzte
ordura arte
ezarritako
eskemak.***

Banaketaren menpe aritu gara neurri handi batean, behintzat, diskurtso mailan, ideologikoki. Baina, bereziki hezkuntza sistemari esker (helduen euskalduntze eta alfabetatzea barne) aurreikuspenak, banaketak eta sailkapenak kolokan geratu dira. Ikas prozesuari eta praktikei esker milaka eta milaka hiztun berrik auzitan jarri dituzte ordura arte ezarritako eskemak. Beraiekin batera genealogia berriak, izen-abizen berriak, itxura ezberdinak, erlijio edota sinesmen berriak... iritsi dira euskararen unibertsoa deitutako horretara. Kasu askotan hiztun berri horiek ohiko identitate edota diskurtso euskaldunekin bat egin dute, bere ohiko balio, aldarrikapen, nahiekin... Baina beste kasu batzuetan ez da hori gertatu. Edozein kasutan, beste aldagai batzuk (jatorria, maila sozioekonomikoa, sinesmena...) alde batera utzi eta euskara ikasi eta barneratu dute. Euskara dute; aldiro-aldiro egin beharreko inkesta soziolinguistikoetan euren burua non kokatu ez baldin badakite ere (*elebidunak, elebidun hartzailea...*), euskara ikasi dute edo ikasten ari dira, ikasgelan, egunero, irakasle euskaldun batekin, euskarazko testu-liburuekin, bera bezalako beste ume, nerabe edo gazte batzuekin.

Horiek dira euren ohiko errutinak euskaraz. Horiek dira euren hizkuntz praktikak eta hortik, elikatuko dituzte euren bizipenak eta, garrantzitsuagoa dena, euren bizitako identitatea (Terradas 2009), egunez egun eta tokian tokiko sortzen eta garatzen dena; pertsonen bizitzaren erdigunea betetzen duena eta bere testuinguruari, bere harremanei zentzua ematen diona.

Beste toki batean idatzi nuen moduan (Hernández 2007), identifikazioaren logikaren aurrean —hainbat diskurtso bultzatu dituena—, hiztunek, bizitako identitatearen alde egin dute azken hamarkadetan, besteak beste hori zelako egunerokotasunean aurrera egiteko zuten aukera. Eta identitate mota honetan euskara, hala nola, joan da bere tokia bilatzen. Kasu askotan keinu xumeetan; beste kasutan modu nabarmenago batean. Testuinguruaren arabera gauzapena ezberdin gertatu da, baina beti keinu txikietan gauzatu eta gauzatzen da, egunerokotasunari lotutako jardueretan, bizipenekin harremanetan. Hori da bizitako identitateak duen bidea: praktika(k), *performancea* eta bizipenak (emozioak, afektuak).

Datu orokorrek ere pistak ematen dituzte hori ulertzeko: D ereduak jasotako matrikula kopurua keinu txiki horien bitartez ere azaldu daiteke, baita euskaltegiek urtetan jasotako ikasle kopuruak ere, edota, urtez urte, euskararen alde antolatutako ekitaldi ezberdinetan parte hartu duten milaka lagunek. Euren inplikazioak azalpena du bizitako identitate horretan.

Urratsez urrats, lan asko egin da eta keinu txiki askoren ondorioz, euskarak hiztun berriak lortu ditu.

Baina, zer dakigu prozesu horri buruz? Zer dakigu hiztun berri horiei buruz? Zer egin dute eta zer egiten dute hiztun berri horiek hizkuntzarekin? Ez dugu informazio asko galdera horiek erantzuteko⁹. Halere, esan behar da azken hamarkadetan gehien handitu den hizkuntz tipologia hau dela, (ia) nagusitu arte. Hau horrela izanda ere, oraindik esku artean dugun diskurtsoan *betiko* euskaldunek egindakoa eta osatutakoa da, nagusiki. Euren ibilbidea, gora-beherak, kezkak... islatzen dituen. Hortik aurrera pausu gutxi egin direla esango nuke nik. Adierazgarria da zentzu horretan Ane Ortega eta bere taldekideek (Ortega et al. 2014) hiztun berrien profila aztertu eta ondorioztatu dutena: hiztun berri gehienak ez dute bere burua definitzen euskaldun zahar bezala, nolabaiteko legitimitatea ez diotelako ematen euren buruari. Baina, era berean, asko ez dira identifikatzen euskaldunberrien irudiarekin. Ez batean ez bestean. Horregatik asko eta asko *euskaldun* bezala agertzea nahiago dute. *Euskaldun* besterik ez.

Butlerrek *performance* nozioarekin batera garatutako planteamenduari esker ohiko maskulinitasunetik eta femeninitasunetik ihes egin nahi izan dutenak aukera topatu dute identitate berriak eratzeko edo irudikatzen hasteko. Horrela, bere burua ohiko bi generoetatik kanpo ikusten dutenak, ondorengo izendapenak erabili ditzakete¹⁰:

Agénero, androginia bigénero, dos espíritus, género fluido, tercer sexo, tercer género, pangénero, kathoey...

Izendapen/identitate mota guzti hauen atzean, izaera zehazgaitz baino praktika (eta errepikapena) dago, horien bitartez aurreiritziei kontra egiten zaio eta. Prozesu hauetan gainera, tradizionalki baztertuta egon den beste elementu bat nagusitzen da: gorpuzta. *Egiten dugun horretan (performancean)* alegia gorpuztasuna funtsezko alderdia da, ekintzari zuzenean lotuta baitago. Merezi du Estebanen hitzak berriro ekartzeak. Antropologo feminista honek modu horretan deskribatzen du praxiari loturiko identitateak dituen adierazpen fisiko eta emozionalak (Esteban 2011, 36):

(...) gizon edo emakume izan edo sentitzea, edo generoa bizitzea, prozesu guztiz dinamikoak lirateke (...) Sentitzeko, ibiltzeko, adierazteko, mugitzeko, janzteko, apaintzeko, ukitzeko, hunkitzeko, erakartzeko edo erakarria izateko, gozatzeko, sufritzeko eta beste hainbat gauzatarako moduak lirateke, besteekiko etengabeko elkarrekintzan.

4. Kasu honetan, XIX. menditik aurrera zabaltzen den garaiaz ari naiz.
5. Judith Butler da, zalantzarik gabe, feminismoaren barruan bira honen protagonista nagusia, bere lanak eta planteamenduak ezinbestekotzat jotzen dira egun identitatearen nozioa ulertzeko eta definitzeko. Harrigarria da, gizarte zientzietan zabalpen nabarmena izan duen teoriak, hizkuntzaren eremuan aplikatzeko hain ahalegin gutxi egin izana, euskararen kasuan behintzat.
6. Pennycookek (2010), *the practice turn* deitu izan die praktikaren nozioan oinarritzen diren hainbat planteamendu teorikori, ezagunen artean Pierre Bourdiourena izango genuke.
7. Gorputz lan hau, noski, gizarteak (bere interes, balio...) gidatzen du neurri handi batean, horretarako sistema oso konplexu eta eraginkor bat erabiliz. Zaila dirudi hortik ateratzea baina, argi dago, erresistentziarako ere sozializatuak izaten garela, eta hor sortzen dira egiturak eta gizabanakoen artean hainbat gatazka. Erresistentzia horiei esker, euskarak bizirik dirau. Erresistentzia horiek aldarrikatzen ditu feminismoak, esate baterako, genero sistemaren aurka egiteko mezua zabaltzen duenean.
8. DIY: Do it Yourself espresioaren laburdura da, euskaraz *Zuk Zeuk Egin* (ZZE) metodo bezala ezagutzen dena. Horren inguruko informazioa wikipedian bertan topatu daiteke modu erraz batean: https://eu.wikipedia.org/wiki/«Zuk_zeuk_egin»_metodoa
9. Zorionez egun, hitzun berrien gaiak interesa piztu du, bai Euskal Herrian, bai Euskal Herriatik kanpo. Hori dela eta, hainbat ikerlari ari dira eremu horretan lanean. Interes horren fruitua da, esate baterako, Ane Ortega, Estibaliz Amorrortuk, Jone Goirigolzarri, Jaqueline Urla eta Belen Urangak osatutako azterlan interesgarria.
10. Wikipediatik hartuta: <https://es.wikipedia.org/wiki/Genderqueer> (2016/04/15ean kontsultatua).

BIBLIOGRAFIA

- DEL VALLE, Teresa (zuz.) .1985. *Mujer Vasca. Imagen y realidad*. Barcelona: Anthropos.
- DURANTI, Alenssandro. 2000. *Antropología Lingüística*. Madrid: Akal.
- ECKERT, Penelope; MCCONNELL-GINET, Sally. 1992. "Think Practically and Look Locally: Language and Gender as Community-Based Practice". *Annual Review of Anthropology*. 21, 461-90.
- ESTEBAN, Mari Luz. 2009. "Cuerpos y políticas feministas". Ponentzia ondoren jardunaldietan aurkeztua: Jornadas Estatales Feministas de Granada (2-5 diciembre 2009).
- ESTEBAN, Mari Luz. 2011. "Munduan adi egoteko modu bat. Euskal kulturaren jakintzen itsaso zabalean genero, gorputz eta emozioen ariketa antropologikoa". Argitaratu gabeko txostena.
- HERNANDEZ GARCIA, Jone M. 2007. *Euskara, comunidad, identidad. Elementos de transmisión, elementos de transgresión*. Madrid: Ministerio de Cultura.
- HUMBOLDT, Wilhem Von. *Viaje al País de los Vascos* (1801). [Kontsultatuta: 2016/05/02] <http://www.gipuzkoakultura2.net/humboldt/temas.php>
- LUTZ, Catherine; ABU-LUGHOD, Lila (ed.) 2008 *Language and the Politics of Emotion*. Cambridge: Cambridge University Press.
- ORTEGA, Ane; AMORRORTU, Estibaliz; GOIRIGOLZARRI, Jone; URLA, Jacqueline; URANGA, Belen. 2014. "Nuevos hablantes de

- euskera: identidad y legitimidad”. In: Maite PUIGDEVALL (coord.). «Los nuevos hablantes de lenguas minoritarias: pertinencias y legitimidades» [dosier en línea]. *Digithum*, 16, 86-97. UOC. [Kontsultatuta: 2016/05/02]. <<http://journals.uoc.edu/index.php/digithum/article/view/n16-ortega-amorrortu-goirigolzarri-ur-la-uranga/n16-ortega-amorrortu-goirigolzarri-ur-la-uranga-es>>
- PENNYCOOK, Alastair. 2010. *Language as a Local Practice*. London. New York: Routledge.
- ROSALDO, Michelle Zimbalist. 1980. *Knowledge and Passion: Ilongot Notions of Self and Social Life*. Cambridge, UK: Cambridge University Press.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, José María. 1987. *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Estella: Autoedición.
- SURRALLÉS, Alexander. 2009. *En el corazón del sentido*. Lima: Coedición IFEA - IWGIA.
- TEJERINA MONTAÑA, Benjamin. 1992. *Nacionalismo y lengua: los procesos de cambio lingüístico en el País Vasco*. Madrid: CIS, Centro de Investigaciones Sociológicas.
- TERRADAS SABORIT, Ignasi (2004): “Las contradicciones entre la identidad vivida y la identificación jurídico-política”, *Quaderns de l’Institut Català d’ Antropologia*, 20, 63-79.